



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa-oharra

“Oporrak Bakean” proiektuari esker Bizkaian oporretan diran mutiko eta neskato sahararrek Enkarterrietako Museoa bisitatuko dabe

Bilbon, 2012ko uztailaren 6an. Enkarterrietako Museoa (Abellaneda-Sopuerta) mutiko eta neskato sahararren bisitea izan dau gaur goizean. Mutiko eta neskato horreek joandako astetik hona dagoz gure artean, hilabete biko udaldiko oporrak Bizkaian egiteko, “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz” proiektuaren barruan. Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Enkarterrietako Museoa bat egin gura izan dabe ekimen horregaz eta bisitaldi kulturala antolatu deutesie, ekintza jolasgarri eta didaktikoakaz. Hurrengo eguaztenean, Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Gernikako Batzarretxean hartuko ditu.

Neskato eta mutikoez historiaurreko tailerlean hartu dabe parte, Enkarterrietako Museoa Bizkaiko ikastetxeetako ikasleentzat ikasturtero antolatutako ekintza didaktikoetako bat dan horretan. Historiaurreari buruzko bideoa ikusi ostean, umeek sasoi haregaz lotutako ekintza didaktikoari ekin deutesie, eta museoko teknikariak aritu dira silex harriak moldatzen, sua egiten edo kobazuloetako moduko irudiak margozten.

“Oporrak Bakean-Vacaciones en paz” proiektuaren barruko “Begirada Alaiak Aterpetxea” izeneko egitarauan hartzen dabe parte umeek. Horri esker, Algeriako Tindouf inguruko kanpalekuetako bizibaldintza gogorak atzean itxi eta gure artean izaten dira udaldian hainbat ume saharar, urteko sasoi honetan bizileku daben leku horretan 50 gradutik gora jasan behar izaten dabez-eta. Metro Bilbao-ko eta EuskoTren-eko langileek osaturiko “Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe” garapenerako lankidetzak alkarteak antolatzen dau “Begirada Alaiak Aterpetxea” egitarau hori, eta Euskadiko Sahararen Ordezkaritzaren laguntza dauka.

Gaur Museora etorri diran hamazortzi neskato eta mutiko sahararrak Ubideako Olalde aterpetxean dagoz egunokaz, eta datorren eguaztenean Gernikako Batzarretxera joango dira. Ekainaren 26an etorri ziran Bizkaira eta gure artean izango doguz abuztuaren 25era arte. Ekitaldi asko antolatu dira eurentzat, besteak beste Guggenheim Museoa edota Athletic Club-aren garaikurren aretoa ikustea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Convocatoria de prensa

El Museo de las Encartaciones recibe a los niños y niñas saharauis, de estancia en Bizkaia gracias al proyecto “Vacaciones en paz”

Bilbao, a 6 de julio de 2012. Abellaneda ha sido esta mañana el destino de los niños y niñas saharauis que están disfrutando de dos meses de vacaciones estivales en Bizkaia gracias al proyecto “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz”, al que se han querido sumar las Juntas Generales de Bizkaia y el Museo de las Encartaciones (Sopuerta), organizando para ellos una visita cultural y diversas actividades lúdicas y didácticas. El próximo miércoles, la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, les recibirá en la Casa de Juntas de Gernika.

En concreto, los pequeños han participado en el taller de prehistoria, una de las actividades didácticas que el resto del año organiza el Museo de las Encartaciones para los centros escolares de Bizkaia. Después de ver un video sobre la prehistoria, los pequeños saharauis han realizado una práctica pedagógica relacionada con esta época. Han trabajado con los técnicos del museo en la talla de sílex, la obtención de fuego y la pintura rupestre.

Los niños y niñas saharauis participan en el programa “Begirada Alaiak Aterpetxea”, incluido dentro del proyecto “Oporrak Bakean-Vacaciones en paz”, por el que los menores abandonan durante los meses de verano las difíciles condiciones de los campamentos de refugiados saharauis de la región argelina de Tindouf, donde las temperaturas pueden llegar a superar en estas semanas los 50 grados centígrados. “Begirada Alaiak Aterpetxea” es una iniciativa de la asociación de cooperación al desarrollo “Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe” formada por empleados de Metro Bilbao y de EuskoTren y respaldada por la Delegación Saharaui en Euskadi.

Los dieciocho niños y niñas que han visitado hoy el Museo de las Encartaciones y que el próximo miércoles acudirán a la Casa de Juntas de Gernika, permanecen alojados en el albergue Olalde, situado en la localidad vizcaína de Ubide. Llegaron el 26 de junio y estarán en Bizkaia hasta el 25 de agosto. Los organizadores han preparado un completo programa de visitas, que incluye también el museo Guggenheim o el salón de trofeos del Athletic Club.